

IRUÑEA / Jaso ikastolako liburutegiaren arrakastaren gakoa antolatzen dituzten jardueretan dago

Iruñea. Lehen Hezkuntzako ikasleen artean arrakasta handia du liburutegiak. Ikasle hauek egunero bazka-ondorengo jolastorduan bertara joateko aukera dute eta ia egunero bete egiten da. Ikastolako ikasle ohi Ainhoa Fernandez liburutegiko dinamizatzailea da eta arrakasta honen atzean bere lana dago.

Liburutegia bizirik irauteko zenbait jarduera antolatzen ditu Ainhoak. Kurtso hasieran LH eta DBHko ikasleek bisita gidatuak izaten dituzte. Bisita horiek egitea oso garrantzitsua da ikasleak zuzenean liburutegiarekin kontaktua izateko eta joaten direnean galduta ez sentitzeko. Aurten, gainera, LHko 2. zikloko ikasleekin jarduera berri bat martxan jarri dugu: maleta ibiltaria, bere helburua etxeetan eta familietan irakur zaletasuna lantzea dela. Liburutegiko materiala maleta batean sartu eta ikasleek beraien etxetara eramanen dute. Ikasle bakoitzak maleta aste baterako eramanen du, hurrengo astean gelara ekarri eta hurrengo ikasleari emateko. Maletan ikaslearentzat bi liburu daude, aldizkari bat gurasoentzat eta musika entzuteko CD bat..

Liburuen mailegua egiteko, bestalde, ikasleak liburutegiko bazkideak izan behar dira. Ainhoak bazkide bakoitzari bere txartela egiten dio, argazki eta guzti. Ikasleetaz aparte, irakasleek eta ez-irakasleek ere maileguak egin ditzakete. Ainhoaren ustetan "oso ongi" funtzionatzen du zerbitzuak "ikasleen artean irakurle amorratuak ditugulako".

Liburutegiko fondoan mota guztietako liburuak aurki ditzakegu: informazio liburuak, eleberriak, komikiak, aldizkariak eta abar luze bat. Hizkuntzei dagokionez, lau hizkuntzetan aurki ditzakegu lanak: euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez edo frantsesez. Liburutegiak urtero bere aurrekontua du eta pixkanaka liburuak berritu eta espazioa osatzen goaz. Liburuak erosteko, dinamizatzailea, ikasleak eta irakasleen iri-tziak kontutan hartzen dira.